

LEITZA

IKASTETXE BERRIE ETA GURASOEN LAGUNARTEA SORTZEKO BATZARRA

Agostua'ren 18'an Leitzen intzen batzar bat lenbiziko aldiz «Gurasoen lagunartea sortzeko» eta praille «Salle'tarrak jartzera dizen ikastetxe edo (Escuela Propfesional del Trabajo)'ri buruz itzegiteko. Asiera eman zitzaion meza nagusi ederrakin, bertan itzezin zigun Iruñeko kanonigo don Agustín Arbeloa jaunek, erderaz itzezin zigun baño erakutsi zigun Euskeraz ezjakinaren damua. Jainkoari barkapena eskatuaz gure mintzoa ikasi etzelako. Ikaspid eederra eman zigun; bejondaiola!

Gero esan zun ikusten zula Leitzen urte gutxian egin duen aurrapena fabrike dela ta... lan ugari nonnai, eta dirua irabazteko aukera obeagoak lenago baño; dirua bearra dela, baño erri bat aurrera eramateko dirua bakarra ez dela aski; zuzen joan bada bear dela jakintza edo (kultura) ere; iru gauza bear luela elkarrekin: dirue, jakintza, eta kristautasuna, santutasuna orduan izan dela erri ederra...

Meza nagusi ondorean zinean egin zen batzarrea bertan bildu ziren Leitza'ko gurasorik geienak. Asiera eman zion don Nikolas erriko abadea paunek, itzezin bear zutenak zein ziren azalduaz. Lendabiziko itzezin zuen len aittatutako kanonigo jaunak, gauzak berdintsuak erabilli zituan bere itzaldian, baño mamitsuagoak eta azalpe geiagokorekin; erakutsi zituan gurasoak daukean egin bearrak beren umeek gizatzen (edukatzan). Baita esan zuen asko poztutzen zela Leitza'n euskeraz asko itzeziten zelako eta Naparroan dan ongi-na oitura zaarrak gordetzen direlako.

Ondorean bre itzaldie egin zuan Iruñe'ko Gurasoen Elkartasuneko Buruzagi'ak, don Julio Gúrpile Bilbao'ko Obispo jauneren anaiak.

Onak ere, bere esan bearrak umeen azikerari buruz erabilli zituan, esanaz gurasoak saiatzeko beren umeek leen baño jakintza geiagokoak izan ditezten. Oraingo garaietan lenago etziren etsaiek azaldu direlaiko Naparroan bertan ere, protestantetatik asita. Tudela'n eliza bat egiteko asmotan dabilzela, eta ustirik gutxienean etorri litezela onera ere, bere legea zabaldu naiean.

Gero itzezin zuan Arrazola jaunek, pabrikako jereenteak, esanaz Leitzen nola zegoan, ikastetxe baten bearrean bertan erakutsiko direla eskola eta mekanika gaiak eta abar. Ikasteko balio dunik ez direla geldituko ikasi gabe...; baita ere bertan eman direla nekazaritzako ikasketak batzuek. Nola baitiren Leitzen geienak nekazaritzariak, gai au ere besteekin batean aurreratu dedin. Ortarako bear den diru laguntza ere esan zuan nola izan zan; abade jaunak, erriak eta fabrikak osatuko zula.

Bi praille «Lsalle'tarrak ere etorri ziran; batek itzezin zuan euskeraz; ederki aritu zen eta bere izketaldian azaldu zitzaion bere nortasuna ta jakintza.

Beste gauz askoren artean --esan zuan-- Aita Probinzialari erri au asko gustatu zitziola, naita galerazia egon Ikastetxe geiago irikitzeko Lasalle'tarrai, bera joan zela Erroma'ra baimen billa eta baita eskuratu ere.

Eskola ontan euskeraz ere erakutsiko zala esan zuan.

Bukatzeko nekazaritzari gaitz Peru-rena jaunek, erri ontako semeak, itzezin zuen. Erakutsi zitun berak egindako artaberri edo doble hibridoko artaburu eder batzuk.

«Guraso lagun arteko» buruzagi oiek

gelditu ziran: don Rafael Huarte, Presidente-ordezkoa, don Franzisko Arrazola, idazkari (secretario), don Sebastián Irurtia, diruzaye, don Luis Lasarte eta beste batzordeko edo laguntzalle sail batek osatzen due.

Zorionak eta Jainkoak eman dezaizue la gauzak ongi egiteko laguntza.

ESKARNETXO

DONOSTI TA INGURUETAKO ABESLARIERI

Diskoak egingo ditun abesbatza baterako emakume ta gizaseme abeslariak bear ditugu.

Deitu ezazu 10.644 zenbakira urrutizki-

Bear bada itz anek argitaratu bañan lenago ziur jakingo degu Algeri'ko Kabylia aldean gertatzen ari dana zertan bukatzen dan. Kabylia Algeri'ko zati bat da. Zati menditsuena, Algeri'ko gudak iraun zuan bitartean Frantzi'ak etzuan inoiz lortu izandu Kabylia bere mendean oso-osorik edukitzea; Algeri'ko gudaririk gogorrenak an arkitzen ziran. Kabylia bizi diranak ez dira Algeri'ko beste gaintzekoak bezelakoak, ez errazaz eta ez izkuntzez. Ben Bellaren etsairik aundienak or arkitu izan dira beti. Azken aldi ontan egin erazi zuan referendumean

ortxe bakarrik esan zioten ezetzkoa. Eta ortxen gertatu da azkenengo erreboluzioa. Ait Ahmed eta Mohand dituztela gidari.

Algeri'a partidu bakarrean menpean bizi da: F. L. N. Bañan asko diru partidu ortatik atera diranak eta beste bat osatu dutenak. Beste partidu orrek. Sozialista Indarren Frentia izena du eta nola itzegiteko eskubiderik ez daukaten oraingo Algeri ontan ori egin bearrean arkitu dira. Zer egingo zuten Ori gero ikusi bear. Kabylia'ndaudenak ez dute Kabylia Algeri'tik zatitu ta beste estadu bat sotunai; Ben Bella'k berriz ez du guda asterik nai. Izketan eta konponketak egiten jarriko al dira bi etsaiak? Ben Bella'k erriari dei egin dio eta azalez beñepin erria berekin du, bañan partidu bakarreko estadu batean noraño esan ditek erriak benetan nai duana adierazten duala?

Barruan zalapartak eduki arren kanpoan ere naikoak badauzka Ben Bella'k. Alde batetik Marruecos'kin asarre dabil, bi nazioen arteko mugak ondo jarriak ez daudela ta, bestetik berriz Algeri'ko lur guztiak nazionalizatu ditu, eta lur oien artean asko frantsesarenak izanik Frantzi'rekin ere asarre xamar jarri bear.

Arregi'tar Rikardo'k

BURU AINBAT ABURU

EZTA...! BAIDA...!

UNAMUNO ALA LORONO?

Gai oneri buruz idatziriko lanak pozarren pozez irakurri dodaz. San Martín jaunak bere idazlana dala ta ezuala, bestelako eztabaidea sortu dau. Eztabaida oneik, nire eretziz onuragarriyak dira euskerarentzat, zintzoro ta inori miñik emon bage, adiskide antzo erabilliaz. Betoz ordu onian onelango idaztiok. Bua ZERUKO ARGIA'ren artezkaritzari nire zoriyonik sutsuena. Yarra bide orretatik eta etzarie damu izango. Euskereak orrelakoxiak bear dituz-eta.

Eztabaidiok dirala bide, ikaskizun oneik atera dodaz, ots:

1) Ez dirala Unamuno ta Loroño aldean ipiñi bear.

2) Unamuno jakite aundiko gizona zala.

3) Erderaz idazten gitxi Euskalerrrian bera giño.

4) Bere idazkerea «prestiyator» en antzera, asmoak egia mardulakaz yantzirik, irakurle gixayoa zuritu egiten eban.

5) Pillosopi gayak erabilli-arren etzan pillosopillari.

6) Eleiz gauzetan oker ta kaltegarri, norbait bide onera ekarri-arren.

7) Ez eban euskerea menderatu, ta jakina, bere yakin-eza aitortu bearrin, euskeriari yaurti errua esanaz goiyakintzarako etzala gai.

Auxe da itz gitxitan esanda, nik neuk aurkitu izan dodazan ikaskizunok.



ASPALDIKO ETXE EZAGUNA TA JATORA

1870'an Sortua

AZI AUKERATUAK

Baratzetarako aziak
Urte osoan belarra izateko belar-azi egokiak

10689 Urrutizkiña



1.896

1.963

GIPUZKOA'KO PROBINTZI-ERASTETXEA

(Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa)

Zure diru bearratun gure
«PRESTAMEN SERBITZARITZA»z (Serviciode Préstamos)
balia zaitze.

Zure baserria erosteko edo obetzeko
Zure Arrantz-Ontzia erosteko edo obetzeko
Aberea —azienda— erosteko edo obetzeko
Baratzeko fruituak obetzeko

Jakinbidean jarri zaitze Donostia'ko gure 7 ofizietan eta Probintziako 59 sukursaletan.

ARAKAMA
GARAJEA

TXOFER-ESKOLA
ENGRASE-LEKUA
ERREMOLKERAKO
GRUA-AUTOA
BULKANIZATUAK

Aguirre Miramón, 6 eta 8
Telefonoak 13988 - Etzekoa 16867

DONOSTIA

La Fandería, S. A.



Eratu gabeko
pentsoarekin



Fanderiko pensoarekin

Ez Merkenak,
Bai onenak!!!

Apdo., 36 Tel. 56134

RENTERIA